

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure jarduera egin ahal izateko, ondorengo baliabideak behar ditugu.

- **Baliabide FISIKOAK.**

Ugaldetxoko industrialdean (Oiartzun) lokal bat alokatuko dugu, biltegi eta ofizina gisa erabiliko duguna. Bertara bezeroak etorri eta gurekin harremanetan jarri ahal izango dira. Lokaleko bi zatitan banatuko dugu. Ofizinan bi mahai egongo dira, hiru ordenagailuekin. Biltegia berriz, apal erraldoiez beteta egongo da, produktuak alfabetikoki ordenatuta daudelarik. Lokala hau handia denez, bere alokairua 5000€ koa izango da.

- **Baliabide INTELEKTUALAK.**

Web orri bat dugu produktua saltzeko eta bertan honi buruzko informazioa eskura daiteke. Web orria argia eta garbia da, bezeroak erraz erakartzeko eta gure enpresaren nahia ondo ailegatzeko haiengana. Bertan gure produktua modu erakargarri batean azaltzen da. Jolas-parke hau, produktu berritzaile bat denez eta lapurtua sahiesteko, merkaturatzeko patenteak egin eta produktua erregistraturik geldituko da.

- **GIZA baliabideak.**

Jabe eta sortzaileez gain, sei pertsona gehiago egongo dira gurekin lanean. Horietatik bi, ofizinan egongo dira eta bezeroen nahiak kontuan hartuta produktu egokia prestatu, diseinatu eta aurkeztuko dute. Beste hiru biltegian egongo dira. Hauek, produktuak iristen doazen heinean, ordenatuta gordeko dituzte eta enpresa fabrikatzeileekin kontaktuan egongo dira. Seigarren langilea, teknikaria da. Pertsona honek, gure produktuak jasango dituen erabilerarekin sor daitezken arazoak konponduko ditu. Gu, enpresako jabeak marketingaz

eta mugimendu guztiak ikuskatu eta baieztatzeaz arduratuko gara. Produktua munduan zehar zabaltzeko, hitzaldiak eta meetingak antolatuko ditugu.

- **FINANTZA baliabideak.**

Hasieran bazkide bakoitzak 5000 euro jarriko ditugu, gure aurrezki guztiak enpresan honetan inbertituz. Hortaz gain, CaixaBanki mailegu bat eskatuko diogu. Hasierako kapitala, enpresarentzako materialak erosteko eta alokairuaren errenta ordaitzeko erabiliko dugu.